



EZKERRALDEA
GAZTEDI

Barakaldo – Portugalete – Santurtzi – Sestao

ANTOLATAILEA



LAGUNTZAILEAK



BULTZATZAILEA



BELDUR BARIK JARRERA 2013 LEHIAKETAREN OINARRIAK



1. LEHIAKETAREN HELBURUAK

Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 4. edizioa deitu du. Lehiaketa honetan, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatuko da. Lan horiek errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukidetasuna eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dituzte.

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman libre, errespetuzko, parekide, dibertso eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate tekniko edo artistikoaren gaitetik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken jabekuntzatik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen matxismoaren aurkako konpromisoa.

Proposamenek ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

1. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman libre, errespetuzko, parekide, dibertso eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute.
2. Gogoetak eta eztabaidak sorrarazten dituen mezua eduki behar dute, nesken jabekuntzatik eta mutilen matxismoaren aurkako konpromisotik abiatuta.
3. Indarkeriaz hitz egiterakoan, estereotipoak gainditu behar dira. Hau da, ez da bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik datorren indarkeria fisikoaz bakarrik hitz egin behar.
4. Nesken eta emakumeen aurkako bestelako indarkeria eta bazterketa mota batzuk erakutsi behar dira.
5. Dramari ihes egin behar zaio, eta neskek eta emakumeek ez dira erakutsi behar ezertarako gai ez diren biktima gisa.
6. Originalak izan behar dira, bai tonuan, bai gaian, bai mezua emateko moduan.

Adierazpen artistiko mota oro onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada: flashmob; kamera aurrean errezitatutako poemak edo irakurritako gogoeta-testuak; argazkiak, argazki-muntaiak; fotonobelak; lipdubak; dantza; film laburrak; animazio proiektuak; proiektuak edo artelanak bideoan aurkeztea; performanceak eta kaleko esku hartzeak, etab.



2. PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal dute, bi kategoriatan:

1. kategoria: 12 – 17 urte
2. kategoria: 18 – 26 urte

Banaka edo taldeka parte hartu ahal da, ikastetxe gisa, ikasgela gisa edo elkarte gisa.

Taldearen barruko norbaitek 18 urte edo gehiago badauzka, proiektua 2. kategorian sartuko da zuzenean.

Lehiaketan aurkezten diren 18 urtetik beherako gazteek oinarri hauetako 1. eranskina bete eta aurkeztu behar dute. **(informazio gehiago 5. puntuan)**

ESKUALDEKO LEHIAKETA

Ezkerraldeko (Barakaldo, Portugalete Santurtzi eta Sestao) 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal dute, bi kategoriatan:

1. kategoria: 12 – 17 urte
2. kategoria: 18 – 26 urte

Banaka edo taldeka parte hartu ahal da, ikastetxe gisa, ikasgela gisa edo elkarte gisa.

Taldearen barruko norbaitek 18 urte edo gehiago badauzka, proiektua 2. kategorian sartuko da zuzenean.

Lehiaketan aurkezten diren 18 urtetik beherako gazteek oinarri hauetako 1. eranskina bete eta aurkeztu behar dute. **(Informazio gehiago 5. puntuan)**

3. AURKEZTU AHAL DEN PROIEKTU KOPURUA

Pertsona eta talde bakoitzeko gehienez 3 proiektu aurkeztu ahal dira.

4. AURKEZTEN DIREN PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Proposamenak originalak izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabe.

Beste jaialdi edo lehiaketa batzuetan aurkeztutako proiektuak ezin dira hemen aurkeztu.

Piezak euskaraz, gaztelaniaz, bietan, edo beste hizkuntza batean aurkeztu ahal dira (azken kasu horretan, euskarazko edo gaztelaniazko azpituluekin).

Proiektuek gehienez 5 minutu iraungo dute.

Musika erabiliz gero, egile-eskubiderik gabeko musikak erabiltzea gomendatzen dugu (hau da, copyleft lizentzia daukatenak, edo zuek sortuak direnak). Egile-eskubideak dauzkan abesti bat erabiliz gero, bideoa igo den plataformak bideoaren aurkako neurriak hartzeko arriskua bere gain hartuko du parte hartzaileak.

Proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma batera esteka bat jarritz (Youtube, vimeo, etab).



5. NOLA PARTE HARTU

Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak proposamena e-mail bidez bidali behar dute jarrera@beldurbarik.org helbidera, informazio hau adieraziz: (Rellenamos a modo de guía)

Parte hartzen den kategoria: 1. kategoria.

Proiektuaren izenburua: "jarrera jarrera"

Proiektuaren esteka: <http://www.youtube.com/wat?v=yIPZ16w>

Banaka parte hartuz gero (izena, sexua, adina): Amaia López (24)

Taldean parte hartuz gero (taldea osatzen duten pertsonen izena, bakoitzaren sexuarekin eta adinarekin):

Neskak:

Narrea Ibarra(17)

Amaia Artetxe (16)

Libe Bilbao(14)

Mutilak:

Jon Beitia(15)

Iker Basauri (16)

Harremanetarako pertsona: **Narrea Ibarra**

Helbidea, herria eta probintzia: **Kalea kalea, Legutio, Araba**

Telefonoa: **555.555.555**

Emaila: **mmmm@nnnn.com**

Web, Facebook, Tuenti, twitter, blog (aukerazkoa):

* Lehiaketara aurkezten den proiektua aurkezten duen edota hartan parte hartzen duen 18 urtetik beherako pertsona bakoitzak oinarri hauetako 1. eranskina bete eta aurkeztu behar du. Salbuespenak:

* Taldeko lana ikasgela edo ikastetxe gisa edo elkarte gisa aurkeztuz gero, eranskin bakarra aurkeztu behar du talde osoak. Eranskina betetzea ikastetxearen erantzukizuna izango da. Kontuan izan behar da ikastetxea dela adingabekoen baimenak kudeatzeko arduraduna.

* Pertsonaren edo taldearen izena, kategoria eta udalerrria bideoaren barruan edota Youtubeko, Vimeoko (edo dagokion plataformako) deskribapenean adierazi behar dira.

* Sinatutako baimenak posta elektronikoz bidaliko dira, helbide berera.

ESKUALDEKO LEHIAKETA

Eskualdeko lehiaketan parte hartu nahi dutenek proposamena e-mail bidez bidali behar dute jarrera@beldurbarik.org helbidera, goikoan eskatzen diren datuak adieraziz.

Esan behar da erkidegoko lehiaketan aurkeztu dituzten lanak lurraldekoan ere parte hartu ahal dutela.

6. JASOTZEKO EPEA.

Lehiaketa irekitzeko eta lanak jasotzeko epea irailaren 10ean hasiko da eta azaroaren 15ean amaituko da (biak barne).

ESKUALDEKO LEHIAKETA

Lanak jasotzeko epea **arazoaren 15era** arte irekita egongo da (barne).



7. SARIAK

- . 1. kategoriako saria: 500€
- . 1. kategoriako aipamen berezia: 250€
- . 1. kategoriako aipamen berezia: 250€
- . 2. kategoriako saria: 500€
- . 2. kategoriako aipamen berezia: 250€
- . 2. kategoriako aipamen berezia: 250€
- . Herriaren saria*: 300€

Goian deskribatutako sariei zerga-atxikipen egokia aplikatu zaie dagoeneko.

*Udalerrri bakoitzak antolatzen dituen lehiaketak edo sariak ez dira oztopo izango lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko.

*Herriaren saria bi kategorietako edozeinetan aurkeztutako lanei ematen zaien saria da. Lan horiek epaimahaiak aurretik hautatu dituenen artean egon behar dira.

ESKUALDEKO LEHIAKETA

- . 1. kategoriako saria: 200€
- . 2. kategoriako saria: 300€

Sariei indarreko PFEZren kenketa egingo zaie.

8. EPAIMAHAIA

Antolaketak epaimahai bat izendatuko du. Epaimahaia osatzen duten pertsonak proiektu honi lotutako erakundeen ordezkariak, eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministak izango dira.

Epaimahaiaren eginkizuna hauxe da:

1. Bi kategorietan aurkeztzen diren lanei buruz eztabaidatzea, eta proiektu irabazleak eta aipamen bereziak hautatzea.
2. Gainerako proposamenen artean, herritarren bozketan sartuko diren lanak hautatzea.

ESKUALDEKO LEHIAKETA

Antolaketak epaimahai bat izendatuko du. Epaimahaia osatzen duten pertsonak gazte teknikaria, berdintasun teknikaria, aisialdian dihartuten taldeen kidea eta emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten talde baten kidea izango dira. Epaimahaiaren eginkizuna hauxe da:

1.-. Bi kategorietan aurkeztzen diren lanei buruz eztabaidatzea, eta proiektu irabazleak eta aipamen bereziak hautatzea.

9. EPAIMAHAIAREN EPAIA

Lehen eta bigarren kategoriako proiektu irabazleak eta aipamen bereziak azaroaren 30ean emango dira jakitera, Beldur Barik topaketetan, Basaurin (Bizkaia).

Bestalde, herriaren saria honela emango du herri epaimahaiak:

Herriaren saria hautatzeko bozketa-sistema azaroaren 27an aktibatuko da, 8:00etar Epaimahaiak herritarren sari honetan parte hartzeko hautatu dituen bideo guztia



webgunean ikusi ahal izateko ikusgai egongo dira. Herri bozketarako hautatzen diren lanen egileei (pertsonek edo taldeak) herri bozketa hasi aurreko 24 orduetan jakinaraziko zaie.

Azaroaren 28an, 24:00etan, boto gehien duenak irabaziko du saria.

Bozketa Beldur Bariken webgunean ikusi ahalko da. Facebook, Tuenti eta Twitteren ere ikusi ahalko da.

Prozesu honetan irregulartasunik aurkitzen bada, jendearen saria hutsik gera liteke.

Epaimahaiaren erabakiei ezin zaie aurka egin.

Lan guztiak azaroaren 30eko Topaketan erakutsiko dira.

ESKUALDEKO LEHIAKETA

Lehen eta bigarren kategoriako proiektu irabazleak eta aipamen bereziak **azaroaren 29an** emango dira jakitera, Beldur Bariken topaketan Barakaldon (Bizkaia).

10. LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketako parte hartzaileek beren proiektuen komunikazio publikorako, erreproduktzioarako, hedapenerako eta eraldaketarako eskubideak dohainik lagatzen dituzte, Beldur Bariken katalogoetan, karteletan edota sustapen-piezetan jartzeko, baita proposamenak www.beldurbarik.org webgunean eta sare sozialetako komunikazio kanalean erakusteko ere, maila globalean nahiz tokiko mailan.

Antolatzaileek eskatzen badute, parte hartzaileek beren lan edo proposamena Beldur Barik Topaketan erakutsi, antzeztu edo aurkeztuko dute.

Lehiaketako antolatzaileek ez dute erantzukizunik bere gain hartuko baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik baldin badago. Era berean, parte hartzaileek beren egiletza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

Deialdi honetan Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatuko da. BERDINSAREAK, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizu zuk emandako datu pertsonalak erakunde honen jabetzako datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Fitxategi horien helburua udal kudeaketako berezko lanak egitea da, bere eskumenen eremuan. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal dituzu, helbide honetara joaz: jarrera@beldurbarik.org



ESKUALDEKO LEHIAKETA

√ Lehiaketako parte hartzaileek beren proiektuen komunikazio publikorako, erreproduktzioarako, hedapenerako eta eraldaketarako eskubideak dohainik lagatzen dizkiote Portugaleteko Udalari, baita proposamenak www.juventudportugalete.org, www.portugalete.org eta www.portuigualdad.info webgunetan eta sare sozialetako komunikazio kanalean erakusteko ere, maila globalean nahiz tokiko mailan, bai Portugaleteko Hezkuntza Gazteria Sailenak bai Berdintasun Sailenak.

√ Udal antolatzaileak Udal laguntzaileei utzi ahalko die lanen erabiltze-eskubidea.

√ Antolatzaileek eskatzen badute, parte hartzaileek beren lan edo proposamena Beldur Barik Topaketan erakutsi, antzeztu edo aurkeztuko dute.

√ Lehiaketako antolatzaileek ez dute erantzukizunik bere gain hartuko baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik baldin badago. Era berean, parte hartzaileek beren egiletza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

√ Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

Deialdi honetan Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatuko da. PORTUGALETEKO UDALAK, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizu zuk emandako datu pertsonalak Gazteria eta Emakume Sailako informatika fitxategietara sartuko dira. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal dituzu, helbide hauetara joaz: juventud@portugalete.org, aulajoven@portugalete.org edo mujer@portugalete.org.

11. ANTOLAKETA

Emakundek eta EUDELek antolatu dute, Berdinsarearen esparruan; Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako aldundiek sustatu dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, EITBren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz.

Informazio gehiago hemen:
www.beldurbarik.org
jarrera@beldurbarik.org

Harremanetarako:
639.702.767
618.557.435



ESKUALDEKO LEHIAKETA

Barakaldo, Portugalete Santurtzi eta Sestaoko Gazteria eta Emakumearen Sailek antolatzen dute, EUDELen laguntzaz.

Informazio gehiago hemen:

BARAKALDO

www.gaztebulegoa.org
gaztebulegoa@barakaldo.org

Harremanetan jarri:
94 478 95 96

PORTUGALETE

www.portugalete.org
www.juventudportugalete.org
juventud@portugalete.org
aulajoven@portugalete.org
mujer@portugalete.org

Harremanetan jari:
94 472 93 13 (Gazte Informazio Bulegoa)
94 472 93 12 (Emakume Zerbitzua)

SANTURTZI

www.santurtzi.net
mujer@santurtzi.net
gib-oij@santurtzi.net
gib-oij2@santurtzi.net

Harremanetan jarri:
94 483 35 66 (Emakume Zerbitzua - Berdintasuna)
94 483 61 10 (Gaztebox)

SESTAO

www.sestao.net
gazte@gaztesestao.e.telefonica.net
cijsestao@infonegocio.com
beldurbariksestao@gmail.com

Harremanetan jarri:
94 495 61 27
94 495 06 01





Barakaldo – Portugalete – Santurtzi – Sestao



ANTOLATAILEA



LAGUNTZAILEAK



BULTZATZAILEA



1. ERANSKINA

AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA
ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR
DEZATEN

..... andreak/jaunak, adinez nagusi,
..... zenbakidun NAN duena, eta
jaunak/andreak, adinez nagusi, zenbakidun NAN
duena, helbidean dutenak,
telefono zenbakiarekin, adingabekoaren
(..... urte dituen etae-maila duena) ama / aita (edo
tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik

ADIERAZTEN DUGU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta
Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko
maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure
alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko,
emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta
lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu
.....n,(e)koaren
.....(e)(a)n

* Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira,
biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren
baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza
eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.



Barakaldo – Portugalete – Santurtzi – Sestao



2. ERANSKINA

IKASTETXEAREN EDO ELKARTEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO

..... andreak/ jaunak, adinez nagusi,
..... NAN zenbakiarekin, helbidea
..... n, telefono-zenbakia
eta e-maila dituenak,
..... ikastetxearen edo
elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien
edota lege-ordezkarien baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren
.....(e)(a)n

